

Hobetu egin da beren egoera pertsonalari buruz gazteek egindako balorazioa


Gainera gazte gehienak optimistak dira etorkizunari begira

2016an Euskadiko gazteek 7,6ko puntuazioa ematen diote, batez beste, beren egoera pertsonalari Otik 10era bitarteko eskala batean. Puntuazio hori berdina da emakume nahiz gizon gazteen artean.

Egoera pertsonalaren balorazioak hobera egin du aurreko urteekin alderatuz gero, eta 2015ean erregistratutako balio bera jaso da 2016an ere. Hain zuzen, horixe da altuena 2000. urtean martxan jarritako serie osoan.

Egoera pertsonalaren balorazioa altuagoa da 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, 18 urte edo gehiago duten biztanleen guztizkoaren aldean.

Egoera pertsonalari buruzko balorazioaren bilakaera. Gazteriaren eta 18 urtetik gorako biztanle guztien arteko alderaketa (0-10 eskala)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak seriea, Gazteen argazkiak seriea eta Aurrera Begira seriea*) eta Lehendakartzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (*60. Euskal Soziometroa*)


Gazteak hobekuntzaren jakitun dira; hala, 2016an (*Aurrera Begira* bildumaren azken datuen arabera), 15 urtetik 29 urtera bitarteko gazteen erdiak baino gehiagok uste du bere egoera pertsonalak hobera egin duela azken bost urteetan (% 56,5). Beste % 31,6k uste du berdin jarraitzen duela, eta % 10,8k, aldiz, okerrera egin duela.

Emakume gazteen artean handiagoa da beren egoera pertsonalak hobera egin duela uste dutenen ehunekoa, gizon gazteekin alderatuz gero (% 59,4, % 53,6ren aldean).

Gainera, Euskadiko gazteria gehienbat baikorra da etorkizunari dagokionez: 2016an 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 69,2k uste du beren egoera pertsonalak hobera egingo duela bost urteko epean.

Emakume gazteak zertxobait baikorragoak agertu dira, gizonen aldean, beren egoera pertsonala hobetuko ote den galdetu diegunean (emakume gazteen % 41,3 eta gizon gazteen % 67,1).

Bost urteko epean egoera pertsonalak izango duen bilakaerari buruzko ustea 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Aurrera Begira 2016)